

Lankide estimatua:

“Maiatzaren 2ko SHD/442/2020 Aginduak, alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu-mailako zenbait murrizketa malgutzen dituenak, normaltasun berri baterako trantsizio-planaren 2. fasea aplikatuz”, “Lehendakariaren 12/2020 Dekretuak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako ezartzen baitira trantsizio-prozesuaren 2. fasea aplikatzeko Espainiako Gobernuarekin adostutako arauak” eta “maiatzaren 22ko JUS/430/2020 Aginduak, COVID-19aren aurrean, Justizia Administrazioarako Deseskalatze Planaren 2. fasea aktibatzen duenak” ezarritako irizpideekin bat etorritz, Gobernu Batzordeak, 2020ko ekainaren 1eko bileran, **bere instalazioak berriz irekitzea** erabaki du, **ekainaren 8tik aurrera**. Horrenbestez, elkargokideek eta publikoak, oro har, Elkargoan sartu ahal izango dute, jarraian adierazten diren argibideak eta sar daitekeen pertsona kopurua aintzat hartuta:

Sar daitekeen pertsona kopurua, ICAGiko langileak kontuan hartu gabe			
	Lekua	Pertsona kopurua	Eraikinean, guztira
Elkargoa	harrera	1	26
elkargoa	liburutegia	3	26
elkargoa	1. bilera-aretoa	3	26
elkargoa	2. bilera-aretoa	3	26
elkargoa	3. bilera-aretoa	3	26
elkargoa	prestakuntza-gela	3	26
elkargoa	batzar-aretoa	7	26
elkargoa	gerentzia	1	26
elkargoa	kontabilitatea	1	26
elkargoa	dekanotza	2	26
elkargoa	Areto Nagusia	33	38
Togen gelak Don	Harrera		
Togen gelak Don	A. Bilera-aretoa /fotokop.	1	10
Togen gelak Don	B. Bilera-aretoa	3	10
Togen gelak Don	Lan-mahaia	6	10
OJZ	Administrazioa	1	2
OJZ	abokatuak	1	2

*irekitzen denean

Togen gelak Irun	STI	2	2
Togen gelak Azpeitia	STA	1	1
Togen gelak Eibar	STE	1	1
Togen gelak Bergara	STB	1	1
Togen gelak Tolosa	STT	2	2

1. Elkargo Prestuaren Mandasko Dukeko Egoitza:

Berriz irekiko dira **administrazio-zerbitzuak, bilera-aretoak eta Liburutegia, erabilera-jarraibideak eta sar daitekeen pertsona kopurua aintzat hartuta.**

Elkargoaren egoitzak honako ordutegi hau izango du: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Elkargoaren egoitzara sartzeko DERRIGORREZKOA IZANGO DA OSASUN-MASKARA ERAMATEA eta harreran jarrita egongo diren gelek in eskuak garbitzea. Osasun-eskuzorroak erabiltzea gomendatzen da.

Egoitzako gainerako gelak itxita mantenduko dira, baita komunak ere.

Elkargokideen nahiz partikularren mota guztietako idazkiak bitarteko telematikoak erabiliz jasotzen saiatuko gara, eta ezinezkoa bada, dokumentu horien 4 eguneko berrogeialdi-protokoloa ezarriko da.

Bilera-aretoak aldeztu aurretiko erreserba-sistema baten bidez erabili ahal izango dira, Elkargoaren 943 440 118 telefonora deituta edo secretaria@icagi.net helbide elektronikoaren bitartez. Bilerek ordubeteko iraupena izango dute gehienez, eta arestian aipatutako pertsona kopurua sartu ahal izango da. Elkargokideaz gain kanpoko beste norbaitek erabili behar izanez gero, elkargokidea bera arduratuko da erabilera-arauak betearazteaz.

Liburutegian ere pertsona kopuru jakin bat sartu ahal izango da; ordenagailuak ez dira erabilgarri egongo eta erabiltzaileak Liburutegiko arduradunak zehaztutako lekuan kokatuko dira. Erabiltzaile bakoitzak ordubetez egon ahal izango du, gehienez ere, eguneko.

Erabiltzaileek ezin izango dute apalategietara zuzenean joan obrak aukeratzera, eta liburutegiko arduradunari eskatu beharko dizkiote. Era berean, abokatu bakoitzak gehienez ere 3 obra kontsultatu ahal izango ditu eguneko, eta 6 asteko (mailegu-sistema bidez eskatutakoak barne), berriz erabili ahal izateko bete behar duten 14 eguneko berrogeialdia dela eta.

Izapideak arintze aldera, obra Elkargoaren intraneteko bilatzailean (<https://www.icagi.net/es/privada/biblioteca/index.php>) identifikatzea eta mailegua biblioteca@icagi.net helbide elektronikoan eskatzea gomendatzen da, gero Elkargoaren egoitzako harreran jaso ahal izateko.

Hurrengo asteetan Elkargoaren egoitzan egitea aurreikusten ziren egintza, ikastaro, jardunaldi edo bilera guztiak bertan behera mantenduko dira.

2. OJZ

83-2020 zirkularrean jakinarazi zitzaizuen moduan, ALDEZ AURRETIKO HITZORDUA hartu behar duzue Orientazio Juridikoko Zerbitzuetako abokatuei aurrez aurreko kontsultak egiteko, esteka honen bitartez (<https://euskadi.eus/cita-orientacion-juridica>) edo telefono honetara deituta: 943.004.356.

Aldez aurretiko hitzordurako bi profil daude: publikoa, oro har, eta profesionalena. Profesionalen profiletik sartu beharko duzue. Era berean:

1. SMS edo posta elektroniko bidez identifikazio-mezu bat bidaliko zaizue, eta mezu hori jaso duen telefono mugikorrarekin joan beharko duzue hitzordura.
2. AURPEGIKO MASKARA ETA ESKUZORROAK eraman beharko dituzue, eta Epaitegiko langileek emandako jarraibideak bete beharko dituzue uneoro.
3. Garaiz iritsi beharko duzue, eta ezin izango zarete Justizia Jauregian sartu hitzordua baino 5 minutu lehenagora arte. Joateko aukerarik ez izanez gero, jakinarazi ezazue lehenbailehen, hitzordua berriz esleitu ahal izateko.

3. Togen gelak

Ohiko ordutegian egongo dira irekita.

Horietan sartzeko DERRIGORREZKOA IZANGO DA OSASUN-MASKARA ERAMATEA eta harreran jarrita egongo diren gelek in eskuak garbitzea. Osasun-eskuzorroak erabiltzea gomendatzen da.

Gogorarazten dizuegu **oraindik ez dela beharrezkoa toga erabiltzea** egintza prozesaletan agerraldiak egiteko. Hori dela eta, areto guztietatik kendu ditugu, behar bezala mantendu eta garbitzeko, berriz erabiltzea nahitaezkoa izan arte. Era berean, ez da arropa-zaindegirik egongo.

Ezin izango dira ordenagailuak eta liburuak erabili, eta ahal izanez gero, ez da eskudirurik erabiliko Elkargoko geletan. Horren orde, transferentziak edo banku-igopenak egingo dira ahal den guztietan.

Fotokopiagailuak Elkargoko langileek erabiliko dituzte lehentasunez.

4. Gai arruntak

- EGOITZETAN EZIN IZANGO DA INOLAKO AGIRIRIK UTZI BESTE LANKIDE EDO HERRITAR BATZUEK JASOTZEKO.
- Egoitza bakoitzeko erabilera-arau hauek kartelen bidez jakinaraziko dira, baita sar daitekeen pertsona kopurua ere.
- Barrura sartu nahi dutenek eta sartzeko pertsona kopurua beteta dagoelako kanpoan itxaron behar dutenek osasun-protokoloetan zehaztutako zuhurtzia- eta segurtasun-tartea mantendu beharko dute.
- Ahalik eta denbora gutxien egon beharko da egoitzetan, egin beharreko kudeaketa/erabilerarako behar-beharrezkoa dena bakarrik.

Osasun-agintariek aurrera egin eta egoitzen erabilera handitu ahala, Gobernu Batzordeak dagozkion neurriak hartuko ditu, unean-unean jakinaraziko zaizkizunak, betiere erabiltzaile guztien osasun-segurtasuneko baldintza egokiak zaintzeko ahalik eta zuhurtzia eta erantzukizunik handienarekin.